

**MAILOPE TXIKI:** Asmakizuna **ERREPORTAJEA:** Juan Pedro Alday **HAIZEAK ERAMANA:** Paula Aldave  
**BATZARRE:** Korrika badator **LAUBURUA:** Baliabide digitalak **ERREPORTAJETXOA:** Inauteriak

Ikusi  
hemen  
Mailope



[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

## Eskuekin sortuz, irudimena landuz

Mikel Huarte (Baraibar)  
Bertso berriak  
Mailoperi jarriak




Urteak daramatza Mikel Okifena eskultoreak egur taila ikastaroak ematen Lekunberrin. Aurten hamabi ikasle dabilta.


## Asmakizuna

Beste hilabete bat gehiago eta oraingoan aspaldi jarri ez dizuegun asmakizun batekin goaz. Ea nork asmatzen duen. Bidaliezazkiguzue zuen erantzunak mailope@labrit.net helbidera.

BAGINELA ETA BAGARA,  
BI ANAIA BIKIAK;  
GU AURREAN JARRITA,  
HOBETO IKUSIKO DITUZU  
GAUZA GUZTI-GUZTIAK.



A! Oraindik aurtengo zuen inauterietako mozerroaren argazkia bidaltzeko garaiz zabilzate!



ZERBAITETAZ HARRO ZAUDENEAN,  
ZAINDU EGITEN DUZU.  
JARRAITU ONTZIAK BIRZIKLATZEN,  
INGURUMENA HOBETZEKO.

**04>** Iritzia

**08>** Luze: Leire Aranburu

**09>** Zabal: Oskar Estanga



## **10 >** Juan Pedro Aldayren omenez

Joan den abenduaren 1ean zendu zen Juan Pedro Alday Trueba. Jaiotzez beteluarra zen, nahiz eta Donostian bizi izan zen, baina denbora asko pasatzen zuen Betelun. Berak sortu zuen bere garaian Beteluko Kirol Elkarte.



## **14 >** Haur masaje ikastaroa

Lau gurasok euren hilabete gutxiko seme-alabekin parte hartu dute Mentxu Isturizek emandako haur masaje ikastaroan. Guztira bost saio eman dituzte eta balorazio baikorra egin dute.

**16>** Elkarrizketa: Mikel Okiñena

**20>** Kuxkuxean: Martxoko zorion agurrak



## **22 >** Inauteriak!!

Inauteri giroan joan da otsaila. Lekunberrin, Betelun, Baraibarren, Aldatzen eta Arruitzen dagoeneko ospatu dituzte. Herriz herriko irudiak jaso ditugu.

**24>** Kultura: Nafarroako Bertsolari Txapelketa

**27>** 20 urte bidean: Iribasko iturburuak

**28>** Ekinaren ekinez: Sua Kontrol

**30>** Haizeak eramana: Paula Aldave

**Mailope doan banatzen da honako herrietan:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

**Argitaratzen du:** Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**ERREDAKZIOA:** Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo eta Andoni Tolosa.

**ARGAZKIAK:** Labrit, J.A. Garaikoetxea, Amaia Balda, Elena Busto, Andrea Etxarri, Idoia Igoa, M<sup>a</sup> Angeles Urrizalki, Garbiñe Sasiain, Nafarroako Bertsozale Elkarte, Paula Aldave, Kontxi Arraztio, Joxe Mari Zabaleta, Mikel Huarte.

**PUBLIZITATEA:** Labrit Multimedia - 948 210 103  
mailope@labrit.net.

**MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**TIRADA:** 1.600 ale.



## Energia Kooperatibak: Alternatiba Gure Eskuetan

Lekunberrin 20 lagun bildu ziren energia kooperatibeei buruz gehiago jakiteko, Kalaxkak antolatuta. Horretarako Nafarroan eta Larraunen aritzen diren bi kooperatiba gonbidatu genituen: Goiener eta Som Energia-Energia Gara.

Hitzaldia oso interesgarria eta praktikoa izan zen. Gure etxeetan nabaritzen dugu argindarraren prezioak gora eta gora egiten duela. Eta askotan ez dakigu zergatik. Bada jende frankok hotza pasatzen duena gehiago ezin duelako ordaindu. Askotan pentsatzen dugu ez dugula zer eginik eta horrek sortzen du gure haserrea.

Espainiako Estatuan ekoizten den energiaren %80 bost enpresaren eskuetan dago (Iberdrola, Endesa, E.on,...). Eta energia erosten dutenen %70 enpresa horien bezeroak dira. Horregatik, nahiz eta merkaturak librea dela esan, enpresa horiek nahi duten prezioa jartzen dute. Haiek egiten dituzte komeri zaizkien legeak. Eta askotan Gobernuan ibilitakoak pasatzen dira enpresa horien administrazio kontseiluetara. Negozio borobila gure kontura.

Orduan zer egin dezakegu? Bistan da egungo eredu injustua aldatzeko hainbat gauza egin daitezkeela. Oso garrantzitsua da enpresa handi horiei indarra kentzea. Nola? Bezeroak kenduz. Zenbat eta diru gutxiago eman gure poltsikoetatik, orduan eta ahulagoak izanen dira enpresa hauek. Aldi berean, ingurumenarentzat eta herriarentzat hain kaltegarriak diren energia batzuk alde batera utzi behar dira. Petrolioa, nuklearra, frackinga,...ren ordez, energia berriztagarriak bultzatu behar ditugu. Ez dugu ahaztu behar kontsumo arduratsua beharrezkoa dela, aurrezte ere derrigorrezkoa dela gure lurralde iraunen balu. Enpresa handiek, aldiz, nahi dute guk asko kontsumitu eta gure etxeetako potentzia igo... Azken finean, energia haietaz negoziatu da. Eta bukatzeko, energia gutxi batzuen monopolioa izan beharrean, demokratizatu behar dugu. Nola? Guk kontsumitzen dugunaren jabe izanik eta gure ekoizpen plantak sortuz.

Hori dena egin ahal izateko, energia kooperatibak sortu dira. Haietan gero eta jende gehiagok parte hartzen du. Som Energian 20.000tik gora lagun Estatu osoan, eta Goienerrek 2.000tik gora Euskal Herrian. Haien bidez energia berriztagarriak bultzatzen ditugu eta, kooperatibak direnez, eskuratutako diruak balio dezake Euskal Herrian proiektuak martxan jartzeko gure energia propioa sortzeko. Oso erraza da orain gauden konpainiatik koo-

peratiba batera pasatzea: 100 euro eman kooperatibista izateko eta enpresaren kontratuaren aldaketak haiek egiten dituzte. Aldi berean, aholkatzen dizute behar duzun potentzia egokitzeko. Hau eginda, diru dexente aurreztu dezakezu. Informazio gehiago nahi izanez gero, haiekin harremanetan jarri. Batzuk dagoeneko egin dugu. Goiener: [www.goiener.com](http://www.goiener.com) (Maria: 696105204) eta Som Energia- Energia Gara: [www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop) (Jokin: 948-510348).

Kalaxka

## Herria ito nahian?

Euskal preso politikoaren eskubideen aldeko taldeak gure haserrea azaldu nahi dugu urtarrilean gauzatu genuen auto karabanan parte hartu genuen lagunei ezarri zaizkigun isunak batera bidetzeko ez direlako.

Kotxe karabana jada 3 urte segidan egin da, urtero baimenarekin egin izan da eta guardia zibilak eskolatuturik ibili gara.

Aurtengoa berezia izan da, Arribetik atera eta Lekunberriko biribilgunean kontrol poliziala zuten ezarria eta Leitzako sarrean ere. Ongi intimidatzeko eta matrikulak hartzeko ongi erabili zituzten.

Eskubiden urraketen salaketa egitea ez da delitua, presoen eskubide minimoak bermatzen ez direnean elkartasuna eta salaketa kalean egon behar dute, baina hau ere ito nahi dute.

Leitza aldean Jorge Fernandez Diaz jaunaren bisita jaso zutenetik iada 52.000 eurotik gora doazen isunak dituzte bildurik, eta egun honetan ezarritakoekin ba beste pixkatxo bat.

Jasotzen duten dirua, espetxetan, berogailua pizteko erabili dezatela eskatzen dugu!! Dakigunez Sevillakoan eta Puertokoan murrizketak direla eta funtzionarioentzat bai, baina presoek zeldan 4x3 metro karrutan 20 ordu segidan egon behar dutenak, berotzeko bi manta bakarrik dituzte!!

Herri honetako elkartasuna ez dute itoko, parte hartu presoen eskubiden aldeko ekimenetan eta ahal duzuen moduan isunak ordaintzen lagundu.

Araitx Beteluko SARE Taldea

**Hostal Betelu**  
<http://www.hostalbetelu.com>  
Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak  
Etorri eta  
on egin!  
Erreserbak:  
948513026  
676145637

**BETELU**  
**PNEUMATIKOAK**  
TAILER MUGIKORRA  
NEUMATIKO ALDAKETA  
ZULATZEEN KONPONKETA  
Vicente Iriarte  
**T. 646 474 166**  
[www.neumaticosbetelu.es](http://www.neumaticosbetelu.es)

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA  
IBILGAILU BERRIAK ETA ERABILIAK SAIGAI

**GRUAS Y TALLERES LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
[gtlarraun@gmail.com](mailto:gtlarraun@gmail.com)

## Juan Migel Etxarri Mitxaus

Abenduaren 28an, igandearekin, Hegoaldeko Lekunberriko parrokian, ekitaldi handi eta garrantzitsu bat gertatu zen, batez ere, hango eta inguruko musikazaleentzat. Hain ezaguna eta maitatua den Juan Migel Etxarri Mitxaus musikari handiak, azkeneko aldiz zuzendu baitzuen Lekunberriko Abesbatza eta txistulariak.

Handik hona denbora pixka bat igaro bada ere, ez nuke gertaera hura, eta batez ere aipatu dudan pertsona hori, besterik gabe pasatzen utzi nahi.

Jakina den bezala, hemendik aurrera Javier Martijak hartu du abesbatza zuzentzeko ardura; zorterik hoberena opa diot. Eta Juan Migelen pertsonara itzulita, nik esanen nuke beti nabarmendu dela, izateagatik txistulari txukun eta prestua, abesbatza zuzendari aparta eta tenor ikaragarri handia, ia-ia paregabea inguru hauetan. Hoberenetako bat, inolako zalantzarik gabe. Kantatzen eta zuzentzen jarri dituen grina eta gogoia egundokoak izan dira, oso aspalditik. Barruan zeuzkan indar eta jakinduria guztiak kontzertu guztietan ematen zituen, transmititu ahal zen guztia transmititzen zuen. Gorago aipatu dudan azken kontzertu hura ere, halakoxea izan zen, bete-betea, gozatzeko modukoa benetan, distiratsua, eta Juan Migel nik ikusi nuen inoiz baino gogotsuagoa, gozamen betean.

Lekunberri eta Larraunen nekez ordaindu eta eskertu ahalko diogu merezi eta behar duen guztia. Egin zitzaion omenaldia ongi irabazia zeukan. Merezimendu handiak zituen halakoren bat jasotzeko, Jesus Jaimeraren laguntza eskerga inolako momentuan ahaztu gabe, jakina. Nahi duen orok, aukera polita dauka Interneten momentu hunkigarri haiek berriz bizi izateko.

Nik aitortu behar dut, neronez ohore eta gozamen itzelak izan direla, bere zuzendaritzapean txistua jo ahal izatea, batez ere azken urteotan, eta beste horrenbeste, ikusi eta entzutea. Azken kontzertuan, nik ia-ia denbora osoa eman nuen hunkituta, eta zeresanik ez bukaeran.

Eta hau guztia kontatu eta eskertu ondoren, gauza bakar bat nahi nuke, eta seguru naiz horrela izanen dela, alegia, Juan Migelekin txistua jotzen luzaro jarraitu ahal izatea, eta batik bat, Lekunberriko Abesbatzan eta nonahi segi dezala abesten, berekin batera, gainerako guztiok ere gozatu ahal dezagun bere ahots pribilegiatuarekin, bere kantatzeko era sutsu, grinatsu eta gartsuarekin, eta nola ez, bere izate natural eta apal harrigarri horrekin. Sarri arte, Juan Migel Etxarri Mitxaus, eta hartu besarkada sendo eta bero bat.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz



**GAZAK** Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZKI!

Mate  
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika inglesa  
lengua kimika

948 504 450  
64825352

marrazketa teknikoak  
euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

### ALBI Taberna-kafetegia

Eguneko menua, jai egunetako menua,  
bokatak eta pintxoak  
Herriko plaza, 948 604 554,  
Lekunberri

## Bar Ainhoa

- Razioak
  - Pintxoak
  - Ogitartekoak
  - Plater konbinatuak
  - Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.
- Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

# Bertso berriak.

## Mailoperi jarriak

Mikel Huarte (Baraibar)



*Aurtengo otsailean  
bazen nahiko elurra  
gustura\_hartu baino  
nekeza agurra  
nahiko koile atzetik  
ematen beldurra  
irristatu eta  
hausteko hezurra*

*Maite dugu guztiok  
Aralar mendia  
tontor dotoreak ta  
baita pagadia  
erdi-erdian du  
larratza handia  
udaran betetzen da  
behor ta ardia*

Joana Zigandarentzat Puntuak:

Euskararen legea  
aldatu digute

Oinak:

Berdinak, erabat, aintzat, ikasketak



Doinua: Durangotik gorako.

- 6 -



### SANTA AGEDA TRAKETSA

Otsailaren 4an izan zen Agate Deuna bezpera eta bai Larraunen eta baita Araitzen ere kaleetan zehar kantatzea zegoen aurreikusita. Aurten ordea tenperatura baxuek eta elurteak Lekunberrin eta Larraungo abeslariak ez ateratze-  
ra behartu zituen. Lekunberrin erronda egin eta ondoren Azpirotz eta Albiasura joatea zen asmoa. Araitzen Gaintzan zuten hitzordua eta hori ere bertan behera gelditu zen, baina taldetxo ausart bat Betelun bildu zen koplak abestera.



### GAZTE MARTXA 2015

Apirilaren 5ean Lekunberrin hasiko da aurtengo Gazte Martxa eta Irurtzunen eta Berriozarren eginen dituzte geldialdiak. Aitzinak eta Ernaik antolatutako ekimenaren aurkezpena Lekunberrin bertan egin zuten joan den hilean. Informazio gehiago: [www.gazteokmartxan.info](http://www.gazteokmartxan.info)



### LARRAUNGO EGUNA

Apirilaren 17an arratsaldeko 15:30ean izanen da aurtengo Larraungo Eguna antolatzeko bilera Mitxausean. Animatu eta parte hartu!

## Aisialdi erduei begira



Aitor Irastortza

Aupa Mikel! Ze martxa gazte? Hautsak harrotzeko gogoz nator orangoan eta ingurutik desagerrarazten baditugu ezin hobeki. Parrandetan mugitu ohi diren hautsez hitz egin nahi nuke zehazki, abiapuntu posible batetik hasiz: sexuaz. Eten-gabe gogora ekartzen diguten gaia da sexuarena bai komunikabideetan eta baita kalean ere, eta batzuetan, uneoroko kezka hori piztua mantentzeak atzetik interesatuak dituela sus-

“Konturatu beharko dugu noizbait ez garela bakarrik bizi”

matzen dut. Bikotea baduzu, prestigio puntu bat izango duzu ziurrenik eta ez baduzu, bilatzen hasi behar zenuke-ela sentiaraziko dizute, parrandara joatea irtenbide gisa jarriz. Ez bazara juergara irteten, ez zarela pertsona sozila sinestaraziko dizute, baina irtetea erabakitzen baduzu erronka berri bat izango duzu: alkohola edatea, hori baita mundu magiko horretan sartzeko giltza. “Paradisu” horretan, normalean mugatu ohi ditugun jarrera asko onartzen dira Mikel: aske-ago izan omen zaitezke, alaiago, gizonago... baina perfektua izateko hainbat baldintza bete behar ditu, batez ere gure zentzumenei dagokienez. Lehenik ilunpean egon behar du, egiten diren astakeriak ez ikusteko eta beraz ez lotsatzeko. Bigarren, musika altu egon behar du, hau barruraino iristeko eta aldame-nekoarekin hitz egin nahi badugu, belarriaren kontra egiteko, bide batez, gehiago hurbiltze-ko probestuz. Eta azkenik, aipatu bezala, edatea derri-gorrezkoa da, lotsa kendu eta ligatzeko ausardi gehiago izateko. Guzti honekin ez bazara espero zenuen egoerara iritsi, agian erretzen hasteak ez lizuke kalterik egingo. Ez baduzu nahikoa, porrotxoak ere ez dira eskuratzen zailak. Gehiago behar duzula? Sudurrak zuritzen dituzten hauts alaigarri batzuk ere badituzu; hori bai sarri izango dituzu berriro ate joka sudur zuloak bisitatu nahian, azkenean etxean geratzeko eskatuko dizuten arte... Pentsa dezagun minutu batez! Ez al dago gure desioak betetzeko modu zuzenagorik? Zergatik iritsi honaino? Aste guztiko zoriona gau batera mugatu ordez, atera ausardia barrutik eta ekin egunerokoa zorionsuago bilakatzeari.



Mikel Alvarez

Izugarrizko ajea duzu eta atzo gau-ean egin zenuenaz damutzen zarelako idatzi duzu idatzi duzuna, ezta Aitor? Harrapatu zaitut... Bromak alde batera utzita, arrazoi guztia duzula esango nuke. Hala ere, zure kritikari hainbat apunte gehitu nahi nizkioke. Alde batetik, egia da aisialdi eredu konkretu batek balore batzuk sustatzen dituela eta beraz, hori eraldatzea denon lana izan behar duela. Baina, jarri al zara pentsatzen zenbat antzekotasun dauden diskoteka baten eta adibidez, HatortxuRock jaialdiaren artean? Egia da HatortxuRock bezalako jaialdiek bere baitan beste helburu batzuk iza-

“Gure baitan antolatzen diren gauzetan ere jarrera autokritikoak garatu behar ditugu”

ten dituztela eta auzolan filosofia garatzen dutela, baina ez al da musika altua egoten, dena iluna eta alkohol kopuru izugarria? Azken finean, ez daude hainbeste ezberdintasun eta gure baitan antolatzen diren gauzetan jarrera autokritikoak garatu behar ditugu ere. Beste alde batetik, aisialdiaren eremua ezin dugu banandu bizitzak dituen beste aspek-



tuekin, hau da, bizitzeko modu batek aisialdi jakin bat sortzen du. Gaur egun, astean zehar jende gehienak duen bizitzak (lanaren esklabo bihurtu gara eta gure artean erlazionatzeko geroz eta aukera gutxiago ditugu), aisialdi mota oso intentsibo bat sortzen du, non denbora tarte txikian plazer handia sentitzea bilatzen dugun, horrek ekarri ditzakeen ondorio eta arazo guztiekin. Horren adibide garbiena droga kontsumoa eta zuk esan duzun bezala, gure plazer ia guztia larunbat gauera mugatzea da. Hori da azken finean, aisialdi intentsibo batek eragiten duen testuingurua. Gure bizitza goitik behera aldatzen ez badugu Aitor, oso zaila izango zaigu beste aisialdi eredu batzuk planteatzea, izan ere, esan bezala, aisialdi eredu horiek gure eguneroko bizitzaren ondorio bat dira.



Leire Aranburu

LUZE

# Analisi txikiak

Kaixo irakurleok, sasi idazlea nauzue.

Sistema demokratiko batean bizi gara. Hau ez da nik asmatutako gauza, ez da erotu eta burutik pasa zaidan lehen gauza bota dudala. Hau telebista, irrati, aldizkari, egunkari, iragarki...edozein lekutan entzuten da. Eta ez da gure herrialdean bakarrik gertatzen den fenomeno, duela hainbat urtetatik hitz hau esatea modan dago. Hitz garrantzitsua, dotorea eta prestigiosoa da.

Hain zuzen ere hitz hau hartu eta analisi bat egin nahi nuke. Orain arte beti uste izan nuen grezieratik datorren hitz honek "herriaren boterea" esan nahi zuela. Baina duela gutxi irakurritako artikulu batean jakin nuen ez dela horrela. Itzulpen zuzena "artisansu eta nekazarien gobernu" izango litzateke. Bi talde sozial hauek, noblezia deituriko talde sozial baten aurka batzean, sortu zen gaur egun demokrazia moduan ezagutzen duguna (demokrazia hartan esklaboaren eta emakumearen paperak oso exkaxak ziren). Garai hartako demokraziaren helburua, orduko klase ezberdintasunak sortutako arazoan aurka borroka egitea zen, beti ere interes propioei begira. Gaur egun, aldaketak egon dira nahiz eta funtsean orduan sortutako ideia den gaur egungoaren oinarri. Demokrazia ez da arazoak konpontzeko sistema hotz eta berekoi bat, baizik eta herritarren bi-

“Sistema demokratikoan daukagun ekintza bakarra lau urtetik behin papertxoa kutxan sartzea da”



zikidetzak baketsua, pertsonaren duintasuna eta garapena bermatzen dituen sistema konplexua. Arrazoian eta batez ere guztion iritziz eta pentsamenduak biltzen dituen elkarrizketan oinarritua dagoena. Beste modu batean azalduta, demokrazia nolabaiteko arte lan bat da, kolorea, argiak eta ehundurak erabiltzen ditu, margolariaren ideiarri bes-

te guztiaren gainetik zentzua emateko, horrela armonia eta edertasuna lortuz.

Lehengora itzuliz, ia herrialde gehienek dute beraien burua demokratikotzat, eta argi dago aurreko hori guztia irakurri ondoren sistema zentzuzkoena eta zuzena dela hain maitatua dugun utopiar iristeko.

Baina aurreko guztia egia bada, orduan demokrazia hitza entzuten duan bakoitzean zergatik sentitzen dut mesfidantza sentimendu hori? Eta mesfidantza hori benetan al da demokraziaren aurkako mesfidantza? edo demokrazia sistema hori gidatzeko agintarien inguruan sortutako mesfidantza da?

Pentsatzen hasia naiz gure demokrazia hau, ez dela hain perfektua eta demokraziaren esanahia eta helburuak ez direla oso modu txukunean betetzen. Agian irudipen hutsak dira baina uste dut gure sistema demokratikoan daukagun ekintza bakarra lau urtetik behin papertxo bat kutxa batean sartu eta orain politikari izenez ezagunak diren nobleei boterea ematea dela. Beraien bitartean demokraziaren izenean herritarren "ez onurarako" egiten dute (gure aurka egiten dutela esatea ez litzateke batere polita geratuko eta gainera ez da horrela inolaz ere).

Ziur dakidana da "demokrazia" honi kirats moduko bat dariola.

SK

SUAKONTROL  
LEKUNBERRI

*Suaren kontrako plakak*



Oztegin kalea 25, Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es





# Ze gizon mota naiz?

Txikitatik izan naiz gizon mota berezia. Txikitan ez zitzaidan gustatzen futbolearen oihuka ibiltzea, borrokatzea ere ez. Eskolako mutil ekintza arruntekin ba gustura egoten nintzen, pilotan, harrapaketan etab... baina oso ongi pasatzen nuen ere txutxu-mutxuka, kontutan, arropaz hitz egiten... Sarri gehiago gustatzen zitzaidan irakurtzea txabolak egitea baino, edo ipuinak sortzen aritzea Playmobilarekin, gerran ibiltzea baino pistolekin. Gogoan dut ere etxean behin panpina bat izan nuela, oso gustuko nuen, baina azkar desagertu zen nire ingurutik...

genion, berdin zion mutila edo neska izan. Horren ondorioz, homosexuala ote nintzen ere hasi nintzen pentsatzen, jendeak ere horrela zioen, nik ez nuen sentitzen, edo ez nion nire buruari sentitzen uzten? Baina zalantza nuen... ez nintzen gizon mota arrunta...

**“Beti aktibo izan beharrak ez digu sentitzen duguna adierazten uzten”**

Eskerrak denbora tarte horretan generoaren inguruan hausnartzen hasi nintzen. Generoa da, gizon edo emakume jaiotzeagatik gorputzez (beste gauza bat da barnekoa...) gizarteak zer “egin behar duzun” edo “nola izan behar dugun” suposatzen duen sinesmen hori dena. Kasurik argienak “gizonek ez dute negarrik egiten” edo neskek “finak eta jatorrak izan behar dute” bezalako leloak dira, baina milaka gauzatxo txiki daude hor, etengabe elkarri esaten dizkiogunak, zer dagoen ongi eta zer gaizki, zer den gizonena, zer neskena, zer marikoiena....

Suposatzen da garai hauetan asko aurreratu dela gaian, behin batek ongi zioen bezala parekidetasunaren bidean eta ez berdintasunean, berdinak ez garrelako, baina parekideak bai. Emakumeen eta gizonen soldaten alderaketa bat egiten bada, azkar eroriko da mito hori. Parranda batean zenbat eta ze sexutatik dauden eta orduaren arabera, laster eroriko da mito hori. Baina ez naiz kezkatuko orain emakumeenaz,

gizonenaz baizik. Bi alderdi ditugulako gizonok honetan, zapaltzaileak gara eta aldi berean zapalduak ere.

Ez dut esango nola garen zapaltzaile “borondatezko”, hori agerikoa dela uste dut. Baina nahi gabe nola zapaltzen dugun, bai. Beti gizon bezala “aktibo” izan behar dugula uste dugu, bai erlazioatzeko orduetan (beti inizatiba eraman, planak egin, bideak markatu), baita gure karreratan ere (nor izan behar dugu, dirua ekarri, prosperatu...). Ondorioz, etxeko arloa, umeen eta helduen zaintza etab, oraindik emakumeen eskuetan uzten ditugu, guk ez dugu gure burua irudikatu ere egiten hor. Adibidez...

Baina zapalduak gara, beti aktibo izan behar horrek, ez digulako uzten sarritan benetan sentitzen duguna adierazten, tentsioan egon behar dugulako sarritan, indarra adierazten, inizatibak eramanen... Besteekin (gizon edo emakume) kontaktu fisikoa asko kentzen digu, adierazpidea gogortu... Gauza mordoa zeinak benetan garen horretan arazoak sortzen dituen, desorekak. Kontua da, berez zapaldu baino pribilegiatuago garenez, ez dugula orokorrean arazoa ikusten. Baina arazoaren beste zati bat da gure desoreka horrek mundua desorekan duela, beraz, hori ere gure arazoa da.

Ez dakit ze gizon mota naizen, behintzat badakit gizona naizela. Lantzen jarraitu nahi dudana da nola oreka lortu nire gizontasunean, nire ezaugarri pertsonal bereziekin eta munduarekiko izango ditudan jarrerekin. Nire bidea eginez, inor zapaldu gabe eta zapaldua izan gabe. Eraikitzen jarraituko dut. Zuk badakizu ze mota zaren?



Nerabezaroan ere berezi jarraitu nuen. Ohitura berriak probatuta, jendea besarkatzea gustatzen zitzaidan, horrek lasaitasuna ematen zidan eta jendearekin harreman “jatorragoak” zetozela iruditzen zitzaidan. Lagun artean elkarri ezpainetan muxu ematen

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**

  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



## *Kirol zaletasuna biziz eta transmitituz*

*Iazko abenduaren 1ean 85 urte zituela hil zen Juan Pedro Alday Trueba. Beteluko Kirol Elkarteak sortu zuen 70eko hamarkadaren amaieran eta urte batzuetan zehar gaztetxo koadrila bat ibili zen Nafarroako, baina batez ere Gipuzkoako kros probetan parte hartzen. Mikel Rekalde, Ander eta Kontxi Arraztio, Manuel Iriarte eta Peio Rekalde izan ziren gazte horietako batzuk eta beraiekin eta Juan Pedroren senitartekoekin izan gara, Mattin Sotil eta Elena Busto ilobekin eta Juan Pedroren arrebarekin, Maria Jesusekin.*

Beteluarra zen jaiotzez eta bihotzez. Juan Pedro Alday Beteluko Bengoetxean jaio zen. Ama, Jesusa Trueba, ere beteluarra zen eta Iruñetik gurasoen etxera etorri zen erditzera. Gainontzeko hiru senideak Iruñean jaio ziren, han bizi izan baitziren Betelura etorri baino lehen. Maria Jesus Alday: *“Gure gurasoak Iruñera ezkondu ziren, baina Guerra Zibila zela eta Betelura etorri ginen, Miguele-nera, nik bi urte izango nituen orduan eta Juan Pedrok hamabi edo hamahi-*

*ru”.* Handik urte gutxira ordea, familia Donostiara joan zen bizitzera, baina askotan etortzen ziren Betelura, batez ere Juan Pedro. Maria Jesus: *“Bera Betelukoa zen, oso beteluarra sentitzen zen. Ahal zuen guztietan etortzen zen hona”.*

Garagardo lantegi batean egiten zuen lana, baina bere afiziorik handiena kirola zen, kirol guztien jarraitzailea zen, nahiz eta berak kirolik egin ez. Maria Jesusek gogoratzen du gaztetan Ondarretako hondartzan jokatzeko zuela futboleko

baino bestela ez zuela kirolik egiten. *“Bueno behin Betelun egin zen lasterketa batean atera zen eta helmugara iritsi zen bere burugogorkeriagatik, baina larri”*. Baina jarraitu bai, pilotazalea zen eta atletismoko jarraitzaile sutsua, garaian punta-puntan ibiltzen ziren guztiak ederki kontrolatzen zituen. Peio Rekalde: *“Lasterketetara bidean joaten ginenean, beti Ricardo Toro delako batetaz hitz egiten zuen”*.

Peiok hamar bat urte zituen Juan Pedrokekin lasterketetara joaten hasi zenean. Ordurako Araizko ia herri guztietan izaten ziren krosak. Lehenengoa Intzan antolatuta omen zuten. Martin Sotil: *“Nik uste herriko elkartearen zuten garaian izan zela”*.

Bolo-bolo zebilen albistea zen garaian Intzan krosa antolatuta zutela. Peio: *“Guk hamar urte inguru genituen eta Intzara joan ginen korrika egitera. Juan Pedro ziurrenik handik ibiliko zen eta korrikarako zaletasuna genuela konturatuko zen”*. Elena Truebak, Maria Jesusen alabak, hamaika urte zituela Donostiako Antiguoa auzoko Platero tabernako bezero batek korrikalari gaztetxoek talde bat sortu zuten. Elena: *“Adineko gizon bat zen eta gaztetxoak hartu eta Ondarretara eramaten gintuen korrika egitera, horrela taldetxo bat sortzen joan zen auzoan. Nire ustez, osaba Juan Pedrok hori ikusita Betelun berdina egin nahi izan zuen”*.

Horrela orduko Beteluko zenbait gaztetxo igandetan kros ezberdinetara eramaten hasi zen. Horretarako ordea, herritarren laguntza izan zuen. Ramon Apalauza, Paco Soravilla *“Paco Berga”*, Martin *“Mitxelaz”*, Blas Satrustegi, Juan Manuel Garmendia eta Intzeko Xamargin ibiltzen ziren besteak beste txofer lanetan. Igande goizetan Beteluko aparkalekuan gelditzen ziren han auto ezberdinetan gaztetxoak hartu eta gehienetan Gipuzkoa aldera joaten ziren. Ostiral arratsaldeetan Roncalesan iristen zen herrira eta berehala hasten zen dena antolatzen. Gaztetxoei ze krosetara joango ziren esaten zien eta larunbat gauean tabernara joan eta festara joateko prest zeuden gazteei hurrengo egunean zein herritara joango ziren esaten zien. Askotan batzuk juergarik egin gabe ere gelditzen ziren igandean gaztetxoak eramateagatik. Paco Berga zen txofer lanetan ibiltzen zen horietako bat: *“Beti haren agindupean ibiltzen ginen eta hilobak ere banituenez taldean... Berak esaten zuen nora joan*



Ramon Apalauza, Mikel Rekalde, Kontxi Arraztio eta Ander Arraztio garai bateko kontuak gogora ekartzen.

## “Oso beteluarra sentitzen zen eta beti zegoen Betelura etortzeko gogoz”

*eta behin lekura iritsi eta gaztetxoak uzten genituenean hamaiketako ederra jaten genuen”*. Hori bai autopistak Juan Pedro ordaintzen omen zituen. Peio: *“Juan Pedro zihoan autoa izaten zen ordainlekura sartzen lehena eta atzetik zetozenentzako ere berak ordaintzen zituen”*. Bueltan etxera etortzen zirenean, autoetatik jaitsi eta Taberna Zaharrara joaten ziren Bittoriri trofeoak erakustera.

Entrenatu bakoitzak bere kontutik egiten zuen. Peio: *“Gaztetxoak ginen orduan eta hara eta hona ibiltzen ginen, arratsalde osoa pilotan jolasten ibiltzen ginen plazan, ez genuen asko behar entrenatuta egoteko”*.

Baina euren lehiak ere bazituzten, batez ere Platero Tabernako talde harekin. Behin Donostiako lasterketa batean Peiok bere kategorian irabazi zuen eta Platerokoak osota erretxinduta gelditu omen ziren. Hurrengo igandean Urgul mendiko igoera zen eta asteburu hartan Juan Pedro herrira iritsi orduko esan omen zion Peiori: *“Prestatzen joan zaitez Platerokoak aste osoan esaten dabiltza irabazi egingo dizutela eta!”*. Baina berriz ere, Peiok irabazi egin zien eta pozik etxera.

Beste behin, ordea ez zitzaion las-

terketa horren ongi atera Peiori. Maria Luisa Irizar lasterkari oso ona zen. Iribasko krosa egiten ari zirela Peio eta Maria Luisa zihoazen lehenak, Peio aurretik baina bigarrenak oinak zapaltzen zizkiola. Halako batean Peio lokatzetan irristatu eta lurrera erori zen, orduan aukera ona ikusi zuen Peiok atzetik joateko eta aurrera jarraitzeko esan zion Maria Luisari. Baina hura bere ondoan gelditu eta altxatzeko esan zion, Peiok jarraitzeko esan zion berriz eta hura geldi. Azkenean Peioren atzetik jarraitu zuen Helmugako azken metroetan aurre hartu zion arte.

Sutsuki bizi zuen Juan Pedrok zaletasuna. Tarteka errietaren bat ere egiten zien. Peiok gogoan du bota berri batzuekin atera zenekoa, *“berriak ziren eta haiek korrika egiteak ilusioa egiten zidan, ez nuen emaitza onik jaso eta a ze errieta bota zidana!”*.

Uda partean eskualdeko herrietan eta gainontzeko herrietako jaietan antolatzen ziren krosetara joaten ziren, negu aldera batez ere Donostia eta Iruñean izaten ziren probak. Horrela lauzpabost urte ibili ondoren, pixkanaka geroz eta gaztetxo gutxiago hasi ziren biltzen eta azkenerako gutxi batzuek baino ez zuten jarraitzen. Peio: *“Hemen pilotan ere asko jokatzen genuen eta behin krosaren egunean Tafallan pilota partidua zegoen eta Tafallara joan ginen, egun hartan haserretu egin zen. Guk jarraitu izan bagenu, berak laguntzen jarraituko luke”*.

Maila oneko korrikalariak ziren beteluarrek euren kategorian, eta sari asko

irabazten zituzten. Behin Juan Pedrok Ibaetara eraman zituen eta 16 kilometroko lasterketa egin zuten 14 urterekin. Peio: *“Juan Pedrok esan zigun agian gehiegi izango zela eta bi buelta zirenez bakarra egiteko, baina amaitzea lortu genuen. Aldi hartan Ander Txipu txiki, Lontxin eta ni joan ginen. Beste behin, maratoi baterako proba bat ere eginarazi zien Rufino Buldain, Mikel Rekalde eta besteren bati. Lezaetako bidean jarri zituen korrika, Juan Pedro atzetik autoarekin”*.

Jaietan probak ere antolatzen ibiltzen zen, Peio: *“Sanpedro batzuetan, errelebotako proba bat antolatu zuen plazan. Txipu txiki eta ni, Iñigo Garmendia eta Agustín Argiñarenaren kontra. Azkenean guk amaitu genuen eta buelta erdiko abantaila atera genien eta Agustinek korrika jarraitu zuen, ez genuela bukatu esaten hasi zen eta iskanbila ederra sortu zen! Kar, kar, kar...”*.

Taldea desegin arren, beti jarraitu zuen Beteluri eta kirolari lotuta eta eskualdeko korrikalarien emaitzak gertutik jarraitzen zituen. Elena: *“Azkeneko urteetan telebistatik ikusten zuen Behobia-Donostia lasterketa eta beti adi egoten zen eskualdekoak noiz azalduko”*.

## Esker onez

Alday familiak eskertu egin nahi die beteluarrei Juan Pedrorekiko izandako maitasuna. Maria Jesus: *“2006an Araitz-Beteluko Krosean omenaldia egin zioten eta bereztat izugarritzko sorpresa izan zen. Berari antolatzea gustatzen zitzaion, eta burugogorra zen, baina lortu zuena guztien parte hartzeari esker izan zen. Gero Araizko Krosa egiten hasi zirenean urtero trofeo bat ekartzen zuen eskualdeko emakumezko onenarentzat”*. Elena: *“Bagenekien Juan Pedro handia zela baina bere heriotzarekin konturatu gara beteluarrek zenbat maite zuten. Hunkituta gelditu ginen hileta egunean herri erdia han zegoela ikustean eta asko eskertzen diegu denei”*.

# “Modu espontaneoan sortutako taldea izan zen”

**Zeintzuk ibili zineten garai hartan taldean?**

**Kontxi:** Asko ginen, Mikel, Angel eta Peio Rekalde anaiak, Ander Arrazti eta ni, Josune eta Xabier Garmendia, Amaia Balda, Rufino Buldain, Javier Goikoetxea, Javier Sotil...

**Eta nolatan hasi zen gazteak krosetara eramaten?**

**Ramon:** Mutil kozkorrei laguntzeagatik edo... Ni akordatzan naiz, azkeneko aldiz Berastegira joan ginela, gero banakatzen ta banakatzen hasi zen desagertu arte.

**Mikel:** Gu zaharrenetakoak ginen, Angel, Rufino... Ordurako herrietan krosak egiten ziren eta gu joaten ginen korrika egitera.

**Ander:** Ni gogoratzen naiz behin belarretan ibili eta Mikel eta Angel Intzara joan behar zutela korrika egitera eta ni haiekin joan nintzela. Juan Pedrok ikusita Platero Tabernan inguruan taldea sortu zela eta hemen ere koadrila bat bazebilela korrika, talde bat sortzea pentsatu zuela. Baina ordurako hemen inguruko herrietako festetan egiten ziren probetan ibiltzen ginen. Hemen lehenengo krosa Intzan egin zen, gero Arribekora joan ginen. Lehenengoan nik irabazi nuen eta gero Arriben Peio Rekaldek alde atera zigun denoi.

**Baina nola antolatu zineten lehendabiziko aldiz?**

**Ander:** Gauza espontaneo bat izan

zen. Astebukaera batean Juan Manuel Garmendia “Lazkao” eta Blas Satrutegirekin, Irunera eraman zituela batzuk. Lehenengo tanda hartan zeuden Manolo Iriarte, Lontxin Zubillaga, Angel Rekalde... Gu ez ginen joan egun hartan, baino hurrengo astebukaerarako denak esaten genuen norabaitera joan behar genuela eta horrela Juan Pedro bera ere animatu eta hara eta hona joaten hasi ginen.

**Anekdotarik?**

**Mikel:** Nik Eibarrera joan ginenekoa dut gogoan.

**Ander:** Eibarrera joan ginen asteburu hartan EITBko gaupasa zegoen Betelun. Gogoratzen naiz Benito Lertxundiren kontzertua izan zela elizan eta handik atera eta gu parranda egiteko gogoarekin ginela baino etxera joan ginela hurrengo egunean krosa genuelako.

**Mikel:** Asteburu hartan bat gaupasaz joan zen eta ongi korritu ere e! Azkonegi! Egun hartan gure kategorian bigarren, laugarren eta bosgarren sailkatu ginen. Eta gainera taldeko trofeoa ekarri genuen.

**Ramon, eta zuek txofer lanetan ibiltzen zineten...**

**Ramon:** Bai.

**Mikel:** Hemen herrian, Ramon Otamendi “Pototo” kirolzalea eta saltseroa zen eta uste harek eta Juan Pedrok mugitzen zutela dena. Uda partean astero zen krosa hemen edo han eta Ramon,



Peio Rekaldek eta Manuel Iriartek ere Juan Pedroekin ibilitakoak dira.

Paco Berga, Mitxelaz... ibiltzen ziren gaztetxoak eramaten.

**Ramon:** Neri ez zidan sekulan etxera deitu, tabernan egiten genuen tratua.

#### Nola prestatzen zineten?

**Kontxi:** Orduan ez ginen ibiltzen orain Ander eta ibiltzen diren moduan serieak etab. egiten. Korrika hasi eta Intzako elkarteraino igotzen ginen denak taldean eta buelta.

**Mikel:** Oraindik autobidea ere egin gabe egongo zen eta beti Intzako bidetan ibiltzen ginen.

#### Taldeko txandala ere bazenuten...

**Kontxi:** Hasi eta urtebetera, jada sariak irabazten hasi ginenean, Juan Pedrok taldeko kamiseta, galtzak eta txandala oparitu zizkigun, Beteluko Kirol Elkartearen izen eta guzti. Gainera gogoratzen naiz esaten zuela: "¿Y ya veis? ¿Los colores de la ikurriña!".

**Ander:** Hori guztia ordaintzeko boletoak atera zituen eta bakoitzari tako bat eman zigun saltzeko. Herrian denek bazekiten korrika ibiltzen ginela eta behala saltzen genituen. Peiok entxufe ederra zeukan horretarako, Aldai zaharrak, "Ezkerrak" tako osoa erosten zion.

#### Eta korrikalari onak al zineten?

**Kontxi:** Bai nahiko korrikalari onak zeuden, Mikel, Peio, Ander, Josune... Kopa asko ekartzen genituen. Gainera, Juan Pedoren poza handiena ahalik eta kopa gehien ekartzea zen. Bere harrotasuna hori zen, guk izan behar genuen inguruko onenak.

**Mikel:** Nik gogoan dut Intzako krosa gora eta behera izaten zela, Errotaldetik etorri eta plazara igo eta berriz bera... Aldapa hura bukaezina zela ematen



Maria Jesus Alday bere alaba Elenarekin Bengoetxea aurrean, Juan Pedro zenaren jaiotetxean.

## “Haraneko herri gehienetan izaten ziren lasterketak”

zuen. Plazara arnastuka iristen ginen eta berriz behera joan behar. Juan Pedro goitik beherako hartan jartzen zen oihuka estutzen: “¡Venga, venga, que cuesta abajo hasta la mierda corre!”.

#### Donostiara asko joaten zineten...

**Kontxi:** Bai, Donostiara korrika egitera joaten ginenean, lasterka ibili eta gero Ezkurra tabernara joaten ginen, Donostian bizi ziren beteluar batzuen taberna eta hango seme-alabak ere gurekin ibiltzen ziren. Han gosaria ematen ziguten.

**Ander:** Mahai guztia pintxo betea egoten zen.

#### Zenbat urtez ibili zineten?

**Mikel:** Urte dezente, sei edo zortzi urte eman genituen. 1978. urte inguruan hasi ginen. Gauza da ikusi zuela korrikalari batzuk bazirela eta herritar batzuen laguntza ere izan zuenez urte batzuetan oso ongi funtzionatu zuela.

**Ander:** Peiori eta niri oinetako berezi batzuk oparitu zizkigun, azpian iltzeak

zituztenak eta Beteluko barruti batean ibili ginen probatzen baina gero ez ginen krosera joan. Baina harrek bazuen gogoia guk jarraitzekoa.

**Kontxi:** Nik uste gero adin batetik aurrera, parrandak direla eta bat eta bat besten pixkanaka uzten joan ginela. Gogoratzen naiz Sanpedro batzuetan, larunbatean arratsaldeko dantzaldia amaitzen ari zela, gaueko hamarretan, hamalau urte izango nituen, eta mutil batekin dantzan nenbilela, atzetik etorri eta “Tú a casa que mañana tienes que dar el callo” Eta Josuneri berdin. Azkenean gaueko hamarretan etxera joan afaldu eta ohera.

#### Eta gerora Juan Pedorekin harremana mantentzen jarraitu zenuten?

**Ander:** Bai, gurekin elkartzen zenean galdetzen zigun ze karreratan egin behar genuen eta ze denborak egiten genituen.

**Kontxi:** Oso gizon ona zen, umoretsua eta ironikoa ere, bazekien bere buruz par egiten. Oso xelebrea zen txistek eta anekdotak kontatzen, bazuen txispa berezi bat.

**Mikel:** Oso pertsona hitzuna zen, Betelu maite zuen asko eta oso gustura ibiltzen zen hemen. —



**JUANLUZENEA  
SAGARDOTEGIA**

**Sagardotegiko  
menua**

Urtarriletik maiatzera

Ostiral gau eta asteburuetan



**948604571**  
**Oderitz**

**Martitxonea**  
sagardotegia

**Inaxio Begiristain**



**Aldatz**  
**Nafarroa**

**948604607**

## Emakumezkoen ekitaldiz beteta dator hilabetea

Martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanen da, hori dela eta Mitxausenea Kultur Etxeak Itxaro Emakume Elkartearekin batera hilabete osorako egitaraua prestatu dute. Emakumearen papezarekin harremana duten ekitaldiak izango dira guztiak. Hilaren 3an izanen da lehena, bisita gidatua egingen dute Lekunberriko Klaratar Mojen komentura. Zine emanaldiak, hitzaldiak, antzerkia, pintxo dastaketa... mota guztietako ekitaldiak egongo dira. Aurten ere atzerri- bidaia bat antolatu dute, martxoaren 18an Pragara joango dira animatzen diren emakumezkoak. Egitarau osoa Agendan.

## Masaje saio lagungarriak

Haur masaje ikastaroan parte hartu dute lau ama eta euren seme-alabek. Mentxu Isturizen eskutik bost saio eman zituzten guztira. Azkeneko egunen oso balorazio positiboa egin zuten. Oihana bi hilabeteko Oinatz txikiarekin oso urduri etorri zen lehen saiora eta astetik astera aurrerapauso handiak nabaritu ditu bere egunerokoan. Masajeak ematen ikasteaz gainera, egoera berean dauden beste ama batzuekin elkartzea oso positiboa izan delako denentzat. Marta: *“Amatasunarekin lotutako arazoak batzuetan pentsatzen duzu zuri soilik gertatzen zaizula eta besteekin esperientziak elkar trukatzu konturatzen zara ez dela horrela eta asko ikasten da”.*



## “Otsaila ilbete, elurra hi bete”

Hala dio esaerak eta hala izan da aurten. Euria, elurra eta zero azpiko graduak izan ditugu azken hilabete honetan. Hori hor Joxe Mari Zabaletak Lekunberri ateratako argazkiak.



## Musika eskolako emanaldiak

Aralar Musika Eskolako ikasleek hileko lehen astean zehar hainbat herritan tresna ezberdinen kontzertuak eskainiko dituzte. Horrez gain hilabete osoan zehar hainbat ekitaldi aurreikusi dituzte. Lehen astean zehar tresna erronda egingo dute sei urteko ikasleei tresnak erakusteko. Gainera, martxoaren 13an, Araxes eskolarekin batera kontzertua izanen da arratsaldeko 15:00etan. Martxoaren 27an, talde instrumentalaren Pop-Rock kontzertua eskainiko dute goi zikloko ikasleek Elizondan 18:30an. Azkenik 28an, 18:30an “Ikasbidaia... nora joan?” ikuskizuna izanen da Lekunberriko kiroldegian. Ikuskizuna musika eskolako gazte eta haur abesbatzako 110 ikaslek eta irakasleek prestatu dute.

**urrutia enea**  
etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
**ADIII! TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA  
**GALBURU**  
Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313  
Alde Zaharra, 50 - 21570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

**IORTIA**  
**Juanjo Gait García**  
Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Tel. 948 467 603  
Altsasu  
Tel. 948 604 804  
Lekunberri  
**HORTZ KLINIKA** [www.clinicaiortia.net](http://www.clinicaiortia.net)  
**ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK**  
**ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA**

## Goizaldeko ordubiak aldera iritsiko da Korrika Madotzera

Korrika kultura ekimenaren baitan aurtengo korrika arroparen desfilea eta ibilbidearen aurkezpena egin zuten joan den hilean Lekunberrin. Haranari buruzko lehiaketa eta txokolata ere izan zen. Martxoaren 19an Urepeletik irtengo da aurtengo Korrika eta martxoaren 29an iritsiko da Bilbora. Gure eskualdetik martxoaren 20tik 21erako gauean pasako da. Madotzera gaueko ordubiak aldera iritsiko da eta Larraun zeharkatuz Lekunberrira eta gero handik Leitzara abiatuko da. Egun horretarako giroa berotzen hasteko AEK-k kantu poteoa antolatu du martxoaren 8rako, eguerdiko 12:00etan Lekunberriko plazatik hasiko da. Gainera, hilaren 20an, bertso afaria izanen da Astizko aterpean. Eneko Lazkoz, Ander Fuentes "Itturri", Migel Mari Eloseggi "Luze", Oskar Estanga eta Larraungo Bertso Eskolako bertsolariak arituko dira bertsoan. Eta gero denak korrika egitera. Bestalde, martxoaren 27an Korrika Txikia egingen dute Ibarberriko ikasleek. Bertso afarirako txartelak salgai AEK-n eta Astizko aterpean, martxoaren 16an izanen da azken eguna.



## Adinkide Eguna martxoaren 21ean

Mailope Gazte Asanbladak azken urteotan bezala, Kinto Eguna edo Adinkideen Eguna antolatu du Lekunberrin martxoaren 21erako. Goizeko hamaiketan kintoen arteko ginkana izanen da herriko plazan. Eguerdian bazkari autogestionatua egingen dute trinketean eta ondoren bingoa. Arratsaldean egingo den trikipoteoarekin gauera arte luzatuko dute eguna eta gaueko hamabietan gaupasa izanen da Dj-arekin.

## Gure Esku Dago aurkezpen ekitaldia hilaren 22an Atallun

Martxoaren 22an, jai berezia izanen da Atalluko frontoian. Ekitaldi nagusian kultur eta kirol arloko aurpegi ezagunek herritarrekin batera parte hartuko dute. Araizko Pilota Eskolako ikasleek pilota partiduak jokatuko dira, txikientzako puzgarriak egonen dira, eta ondoren, musika eta jan eta edana izanen da denentzat. Gainera, oihal metroak saltzeko eta aurtengo GED eguneko ekitaldi nagusiari buruzko postutxo bat ere egongo da. Iaz bezala ekitaldi sinboliko bat ere egongo da mosaiko bat sortuz. Izan ere, aurtengoa, oihalekin sortutako hautestontzi erraldoiak sortuko dituzte hiriburuetan. Horregatik, oihal metroak salduko dituzte eta apirilaren 25ean herriz herri ospatuko den Ehuntze Egunean oihal horiek elkar josiko dira. Bestalde, Larraunen Jostunak dokumentalaren bi emanaldi izanen dira, martxoaren 6an 19:00etan Aldazko ostatuan eta martxoaren 13an, 19:00etan Baraibarko ostatuan. Gainera, hilaren 15ean Lekunberriko plazan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara oihal zatiak saltzen arituko dira antolatzaileak.

**Antsoenea**  
ARDI LATXAREN ESNE GORDINEZ  
%100 EGINDAKO GAZTA ONDUA.  
TF: 948 51 34 68 antsoenagaztak@gmail.com Urtegi

gazta berria salgai!!

**Atabal**  
ohindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com



*“Esanahi bat izateak ez dio balore handiagoa ematen artelan bati”*

- 16 -



*Hamabost urte daramatza Mikel Okiñenak artearekin erlazionatutako tailerrak eskaintzen eta egun eskultore profesionala da. Lekunberrin larunbatero zura zizelkatzen ikasteko tailerrak ematen ditu.*

Mikelek Irurtzunen eta Iruñan ditu bere tailerrak, baina Nafarroako beste herri askotan eskaintzen ditu tailerrak.



### Mikel zu nongotarra zara?

Etxalekukoa, baina orain Irurtzunen bizi naiz, tailer honen gainean hain juxtu.

### Eta nolatan hasi zinen artearen munduan?

Niri betidanik gustatzen zitzaidan marraztu eta margotzea. Hamahiru urterekin Teruelgo seminariara joan nintzen ikastera. Han gela asko zituzten hutsik eta horietako baten uzten zidaten nire marrazkiak, karikatidak eta margoak egiteko. Bertan nengoela saldu nuen nire lehen koadroa. Gero handik Zaragozara joan nintzen eta filosofia ikasi nuen, baina bitartean nire lantxoak egiten jarraitzen nuen. Berriz ere hona bueltatu nintzenean Iruñeko Arte Eskolan eskulturako goi zikloa egiten hasi nintzen eta gero Bilbora joan nintzen Arte Ederrak ikastera.

### Ikastaroekin hamabost urte daramatazu...

Bai, hamabost gutxi gorabehera. Juslarrocha kalean hasi nintzen tailerrak ematen, gero Irurtzunen ere beste talde batekin hasi nintzen, Elizondon, Goñibarren, Ezkabarten, Lekunberrin... Pixkanaka Nafarroako herri askotan hasi nintzen tailerrak eskaintzen eta duela hamaika urte Iruñean tailer bat ireki nuen Gero Arte izena duena, Arro-sadiantailer Oso tailer



Mikelek ikasleen helburuak betetzen laguntzen die.

## “Askotan harritu egiten dira zer egiteko gai diren ikusten dutenean”

politada eta jende asko biltzen da. Bertan nire emazteak, Ainhoa Sanchez, eta biok klaseak ematen ditugu eta gainera gure lanak egiteko lekua ere badugu. Ainhoak margo eta zeramika tailerrak ematen ditu eta ni eskulturaren nago espezializatuta.

### Eta horretaz bizitzea lortu duzu...

Bai, tailerrei esker eta nire eskulturak saltzeari esker bizi naiz. Egia esan zorte handia izan dut eta pozik nago denbora asko izaten dudalako nire eskulturak egiteko. Hamar urtetan 25 sari irabazi nituen eta horri esker nire izena eta lanak ezagutzera ematea lortu nuen.

### Noiz hasi zinen Lekunberrin zura tailerrak ematen?

Ba zazpi urte inguru izanen dira hasi nintzela eta gustura nabil. Larunbatetan bildu ohi gara goizeko 09:00etatik 11:00etara, Lekunberriko udaletxe azpiko aretoan. Hamabi ikasle ditut bertan.

### Zer izaten da gehien kostatzen zaiena?

Bueno zura lantzea oso erraza da, bi hilabeteren buruan nahiko ongi kontrolatzen ikasten dute. Ariketa arruntekin hasten gara, zura nola zizelkatu eta moztu ikasteko eta gero pixkanaka gauza bereziagoak egiten hasten gara. Hasieran sinbolo geometrikoak egiten dituzte ikasleak, euskal tradizioko eguzki sinboloak, lauburuak eta halakoak gero batzuk erliebeak eta eskulturak ere egitera animatzen dira. Askotan harritu egiten dira zer egiteko gai diren ikusten dutenean eta hori oso pozgarria da bai beraiantzat eta baita niretzat ere.

### Eta materiala, zura, lortzea garestia izaten da?

Ez da horren garestia, baina zerrategietan ongi begiratu behar da merkeago lortzeko. Dena den herriko jendea normalean nahiko ongi moldatzen da zura aurkitzeko, badakite egur zaharra birziklatzen eta etxeko zurak aprobetxatzen.

### Ze egur mota izaten da egokiena lantzeko?

Edozein zur lan daiteke, baina normalean, pegoa, haritza, intxaurrendoa edo gereziendoa erabiltzen dira. Ez da komeni oso biguna izatea, adibidez pinua, eta ezta ezpela bezain gogorra ere.



## elkARRIZketa:

*“Artisau profesionalak bezain ongi zizelkatzen duten ikasleak ditut”*

### **Eta zuk eskulturak egiterako orduan ze material erabiltzen duzu?**

Denetik, zura erabiltzen dudanean gehienetan gero beste material bat jartzen diot, larrua, beruna, margoa... Eskaiolarekin ere lan egiten dut, baina batez ere kolorezko metakrilatoekin egindako lanengatik ezagutzen naute gehienek.

### **Harria lantzeko tailerrak ere eman izan dituzu...**

Bai, lehen ematen nituen bai, baina leku itxian egiteko oso material zikina da, gogorra eta lantzen mantsoagoa. Gainera niri ez zait gehiegi gustatzen material hori.

### **Eta zur tailerretan nola egiten duzue lan?**

Jada urte asko daramatzadanez, normalean taldeetan denbora daraman jendea eta ikasle berriak batera izaten ditut. Lehenengo egunean oinarrizko teoriaren klase bat ematen diet eta ikasurtean ikasiko duguna azaltzen diet. Nik lanak proposatzea nahi dutenei nik esaten diet eginbeharrekoa eta horrela pixkanaka ariketa errazen bidez teknika hobetzen joaten dira. Denbora gehiago daramaten ikasleek euren erritmoan joaten dira eta jarraipen pertsonala egiten zaie. Batzuek zer egin nahi duten oso argi izaten dute eta nik hori lortzen lagundu baino ez diet egiten. Normalean jendeak etxean bakarrik egiten ez dakien hori lortzen saiatzen da. Batzuek oso ongi dakite zura zizelkatzen baina espazio-gaitasuna falta zaie eta horretan lagundu behar zaie. Bada jendea erraz ikasten duena eta oso ongi egiten dutenak. Nik baditut ikasleak azoketan saltzen ibiltzen diren artisau asko baino hobe lantzen dutenak zura.

### **Horretarako afizioa duen jendea bada beraz inguruan...**

Bai, bai. Badira pertsonak erretiratu ondoren hasten direnak eta urte gutxi batzuetan primeran lantzen ikasten dutenak. Eta pena ematen dit pertso-



na horrek gaitasun hori zuela gaztetan konturatu ez izanaz, artista ikaragarria izatera iritsi izango litzatekeelako. Garrai batean zurgindegi guztietan zegoen zura behar bezala lantzen zekien profesional bat, orain hori aldatu egin da eta zura lantzen duten artisauak beste ogibide bat izaten dute askotan, horregatik baditut ikasleak artisau askok baino ordu gehiago eskaintzen dietenak afizio honi eta askoz ere hobeki egiten dutenak.

### **Arlo honetan krisirik nabaritu al duzu?**

Artearekin beti krisian bizi izan gara, orain pixka bat gehiago nabaritzen da, batez ere Udalek eta Gobernuak gutxiago gastatzen dutelako halakoetan, baina eguberri hauetan adibidez lau edo bost lan saldu ditut eta egia esan ez dut beherakada nabarmenik nabaritu ez ikastaro aldetik eta ezta salmentan aldetik ere.

### **Lanak bezeroen eskaeren arabera egiten dituzu?**


Normalean ez. Nik nire eskultura egin eta erakusketen bidez ezagutzera ematen ditut edo nire estudioa etortzen dira bezeroak eta egin dudana hori erosten dute. Lehiaketa batera aurkezten zarenean, orduan baldintzetara egokitu behar duzu, baina bestela ez.

### **Eta zuk lan bat egiteko ze prozesu jarraitzen duzu?**

Ba ez dago prozedura zehatz bat. Batzuetan aurretik ideia bat izaten duzu eta horren arabera hasten zara egiten, baina beste askotan azkeneko helburua jakin gabe hasten zara lantzen.

### **Erakusketa asko egiten dituzu urtean?**

Arte eskolan ikasten nenbilenean egin nuen lehenengo erakusketa Lekunberrin izan zen, Mitxausean. Lehen asko egiten nituen baina azkeneko urteotan selektiboagoa naiz eta proiektu bereziren batean parte hartzeko dei egiten ba-



didate joaten naiz baina bestela ez ditut erakusketa asko egiten. Gainera, erakusketa bat egiteko lan asko egin behar dira eta orain lan bakoitza egiteko denbora gehiago hartzen dut lehen baino.

**Eta lehiaketetara aurkezten al zara?**

Horietara ere lehen baino gutxiago. Sari dezente irabazi nituen urte batzuetan zehar, baina gero aspertu egin nintzen, eta azkeneko bi edo hiru urteotan ia ez naiz lehiaketetara aurkeztu. Hala ere, aurtan bi lehiaketatan parte hartzeko asmoa dut. Orain gauzak lasai egiten nabil, egin nahi dudan hori ongi pentsatu, eta behar bezala landuz.

**Baina, sariak lortzeak izena ematen du ezta?**

Bai, sariak irabaztean nabaritzen da eskaera igotzen dela, gehiago ezagutzen zaituzte eta noizbait eskultura bat behar badute, zure izena aukeren artean ateratzen da. Sariak beti dira ongi-torriak. Eta ezagutzera ematea beharrezkoa da.

**Artistaren ogibidea behar bezala baloratzen dela uste duzu?**

Orokorrean askok uste dute ekonomikoki gehiegi baloratua dagoela artistaren lana. Askok ikusten dute zaila eta konplexua dela egiten duten lana, baina gero kostatzen diren horrengegatik diru kopuru bat ordaintzea eta ekonomikoki baloratzea.

**Zure eskulturak erosten dituzten bezeroak ze profil izaten dute?**

Denetik dago, baina batez ere erakusketetara joaten den eta artea baloratzen dakien jendea izaten da. Kulturadun jendea izaten da eta gainera ekonomikoki halako erosketak egiteko aukera



Irurtzungo tailerlean hainbat eta hainbat eskultura eta lan ditu bilduta.

“Orain lan bakoitza egiteko nire denbora hartzen dut”

duena. Baina, izan ditut kulturadunak izan arren aukera ekonomikoki handirik ez zuten bezeroak ere. Eguberri hauetan bi lan erosi zizkidaten bi bezerok ahalegin bat egin behar izan zuten nire eskulturak erostegatik. Eta hori artista batentzat oso hunkigarria da.

**Eskulturek esanahi bat izateak zenbateko garrantzia du zuretzat?**

Nik normalean ez diet izenik ere jarri nire lanei. Zer da garrantzitsuagoa

eskulturak zerbaite esanahi izatea edo benetan eskultura on bat izatea? Nire ustez, ideiak eskultura on bat egiteko balio badizu aprobetxatu egin behar da eta ongi dago, baina esanahi bat izateak ez dio balio handiago ematen. Batzuei beharrezkoa iruditzen zaie eskultura batek esanahi bat izatea balorea izan dezan. Eta nire iritziz, lan batek gauza asko transmititu behar ditu, baina ez du zertan esanahi bat izan, gainera lan batek diskurtso bat behar duenean seinale txarra izaten da hori. Garrantzitsuena lan horren zentzu bat izatea da, perfektua izatea, lortu duzun hori zure merituegatik baino zorteagatik, eta ukitu ia magiko bati esker lortu dela ematea.

**Lagunasesoria S.L.**  
**Fiskala**  
**Laborala**  
**Kontabilitatea**  
**Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
 Arribe-Atallu

**German Lasarte**  
**ARBEONDO**  
**HARATEGIA**  
 Aralar kalea 9  
 Lekunberri  
 948504157

**OKM**  
**ABOKATUAK**  
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
 Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak  
Mailope aldiakariaren bitartez!


# KuxKuxean



**Iraide Aldaregia Balda**  
Martxoak 28  
Zorionak etxeko txikiari bere  
lehenengo urtebetetzean!  
Jarraitu beti bezain alaia  
izaten! Muxu haundi bat famili  
guztiaren partez.

**Jesus Altuna**  
martxoak 24

Urte askotarako Attuna!  
Ongi pasa eguna eta muxu  
haundi bat Egoitz, Eneko,  
Itxaso eta etxeko guztien  
partez!!



**Irene Saralegi**  
Martxoak 6, 7 urte  
ZORIONAK gure printzesa handiari!!  
Egun zoragarri bat pasako dugu denok  
elkarrekin festa handi bat eginez, zure  
betiko irrifar polit hori ikusiz.  
Muxu potolo bat, aitatxo, amatxo eta  
Ekiñe.



**Jokin**

Martxoak 3, urte 1  
Zorionak Jokin!! Ongi ospatu  
zure ingurukoekin. Muxu bat  
aitatxo ta amatxoren partez.



**Lander**  
Martxoak 30, 6 urte.  
Zorionak Lander!! Ongi pasa  
eguna, Naroa, Ibai, aitatxo ta  
amatxoren partez.

Zorionak politte! Prestatu gozoki asko  
zure urtebetetzea ospatzera joango  
gara eta. Besarkada ta muxu asko  
Lekunberriko zure lagunen partetik.



Mailope aldiakaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu **mailope@labrit.net** e-postara hilaren 20a baino lehen.

## asegurogintza



aseguru  
aholkulariak

Zure ondarea  
eta segurtasuna  
babesteko modu  
bakarra behar bezela  
aseguratua egotea da

Telefonoa: 943652220. [asegurogintza@aseguroak.net](mailto:asegurogintza@aseguroak.net)  
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

## CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.



Etxebizitzaren eraikuntza  
eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540  
[construccionesganarbe@gmail.com](mailto:construccionesganarbe@gmail.com)

Oztegin kalea 2, Lekunberri

&gt;&gt; Euskara zerbitzua

## Literatura sarean

*Sarean eskuragarri ditugun euskarazko atariekin jarraituz, oraingo honetan literaturarekin lotutako hainbat webgune interesgarri aurkezten dizkizuegu.*

### Armiarma: [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)

Literaturari buruzko ataria. Honako atalak eskaintzen ditu, besteak beste: kritiken hemeroteka, idazlan klasikoaren gordailua (testu zaharrak eta herri literatura), beste hizkuntzetatik euskarara ekarritako literatura lanak eta baita hainbat idazlan klasiko era elektronikoan irakurtzeko aukera ere. Azken atal honetan 377 liburu daude irakurgai PDF eta EPUB formatuan; Hamleten gisako literatura unibertsaleko ezinbesteko aleak euskaratu edo euskal lan klasikoak, Etxepareren Linguae Vasconum Primitiaetik hasita.

### Euskal Idazleen Elkartea: [www.idazleak.eus](http://www.idazleak.eus)

Euskal literatura eta euskal idazleekin zerikusia duen guztia: programak, jarduerak, albisteak, biografiak, idazleen bilatzailea, euskal literaturaren historia eta abar. Baita Hegats literatura aldizkaria formatu elektronikoan jaisteko aukera ere.

### Galtzagorri: [www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)

Galtzagorri Elkartearen webgunea. Haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatu eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutarazteko sortu zen elkarte hori 1990ean. Hainbat ekimen antolatzen eta sortzen ditu helburu horrekin. Webgunean haur eta gazte literaturako argitalpenak, ezinbesteko lanak, lehiaketen agenda, dokumentazio gunea eta abar aurki daitezke, eta baita euskal idazle eta ipuin kontalarien zerrenda ere.

### Etxepare saria: [www.etxeparesaria.eus](http://www.etxeparesaria.eus)

Haurrentzako album ilustratuak sortzeko literatur sariketa da Etxepare Saria; Nafarroako hainbat toki entitatetako Euskara Zerbitzuek antolatzen dute, tartean Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak. Webgune honetan lehiaketari buruzko informazioa ageri da; horren ibilbidea, parte hartze oinarriak, lan irabazleak, berriak eta abar.

### Hitzen uberan: [www.uberan.org](http://www.uberan.org)

Euskal literatura eta sormenaren ataria da Hitzen Uberan, Euskal Idazleen Elkartea eskainia. Webgunera sartu aurretik "azala" ikusiko duzu, argazkilari batek eta idazle batek elkarlanean egindakoa eta astero aldatzen dena. Behin webgune-

ra sartuta, elkarrizketak, agenda, albisteak, argitalpenak eta literaturari buruzko hainbat kontu interesgarri. Baita komunitateko kide egin eta norbere sormen lanak gainerakoekin elkarbanatzeko aukera ere.

### Lizardiren baratza:

[www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/lizardiren-baratza](http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/lizardiren-baratza)

Jose Luis Padronek astero Euskadi Irratian egiten duen Lizardiren Baratza saioa entzuteko aukera ematen du esteka honek, EITB Nahieran atalari esker.

### 111 Akademia: [www.111akademia.com](http://www.111akademia.com)

Euskal literaturazaleen akademiaren webgunea. Albisteak, liburuen bilatzailea, liburu, idazle eta sarien zerrenda, irakurleen kritikak, agenda, 111 Saria (lehen Beterriko Saria zena) eta abar; baita akademiakide egiteko aukera ere.

### Liburuklik. Euskal liburutegi digitala:

[www.liburuklik.euskadi.net](http://www.liburuklik.euskadi.net)

Euskal ondare bibliografikoaren zaintza bermatzen duen erakundearen arteko gordetgia da Euskal Liburutegi Digitala. Honen bidez, euskal hizkuntza eta kulturaren interesa duen orori sarbide erraza aurkezten zaio. Digitalizaturiko lan ugari ditu liburutegi digital honek: monografiak, aldizkari bildumak eta euskal prentsa historikoa, besteak beste.

### Teatro testuak: [www.teatro-testuak.com](http://www.teatro-testuak.com)

Euskarazko antzerki testuak biltzen ditu webgunea honek, bai itzulpenak eta baita euskaraz sortuak ere. Haurrentzako zein helduentzako testuak, eskola antzerkia, antzerki laburrak (Café Bar Bilbao Sariko antzezlan irabazleak) edo bakarrizketak. Gure klasikoak ere bai, alfabetikoki zein kronologikoki ordenatua.

### Basquepoetry: [www.basquepoetry.net](http://www.basquepoetry.net)

Euskal poesiaren ataria; euskaraz eta beste bost hizkuntzatan. XV. mendetik gaur egunera arteko idazleak eta euren poesia lanak, hauetariko zenbait beste hizkuntzetara itzuliak.

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 576  
info@bidegoxo.com

Industrialgunea  
Lekunberri 9 - 31870  
LEKUNBERRI

**Cyclos IREBER**

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789  
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber



## *Inauteriz inauteri*

Otsailan ospatzen dira gure eskualdeko inauteri gehienak. Ilbeltzean uitziarrek estreinatuta zuten inauteri denboraldia, atzetik beteluek ospatu zituzten eta otsailan ia astebururo izan ditugu inauteriak gure herrietan, Lekunberrin, Baraibarren, Aldatzen eta Arruitzen. Azkenak Gaintzakoak izango dira. Otsailaren azken asteburuan ospatuko dituzte.

Hilabete hotza izan da otsaila, tartean elurra ere izan dugu, baina horrek ez du festarako gogorik zapuztu. Txaranga edo akordeoilarien musikaz alaiturik herri horietan guztietan etxeko errondak eta kalejirak izan dira urtero bezala inauterietako festa-giroa jarri dutenak. Horra hor aurren jasotako zenbait argazki.





Betelu



Aldatz



Arrutz



Baraibar



AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA  
· HARATEGIA ·  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**Elosta**  
Ostatua  
Pintxoak, karta,  
menuak, ogitartekoak  
eta plater konbinatuak  
Lekunberri,  
Alde zaharra 44  
948604717

## Horra, Saragueta, Soto eta Estanga finalurrekoetara

Otsailaren zazpian Iruñean hasi zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 42. edizioaren azken txanpan sartu gara dagoeneko. Bost final-laurdenak jokatu dira dagoeneko. Iruñean, Irurtzunen, Zubirin, Lizarran eta Lakuntzan izan dira eta dagoeneko finalurrekoetara pasako dira 18 bertsolarien izenak ezagutzen ditugu. Eskualdeko hiru bertsolarik parte hartu dute aurtengo txapelketan eta nahiko fin ibili dira. Lehen final laurdenean Aritz Saragueta aritu zen Iruñeko Katakarak aretoan. Hirugarren sailkatu zen 234,5 punturekin Oier Lakuntza (246,5 puntu) eta Jon Barberenaren (253 puntu) atzetik. Bigarren final-laurdeneko saioan, Irurtzunen, Julio Sotok lortu zuen finalurrekoetarako txartela 262,5 punturekin. Zubirin berriz, gutxigatik kendu zion lehen postua Aimar Karrikak (246,5) Oskar Estangari (244 puntu). Lakuntzan eta Lizarran jokatu ziren azkeneko bi final-laurdenak eta dagoeneko zehaztuta ditugu martxoan jokatuko diren hiru finalurrekoak:

### Martxoak 7, larunbata

Berriozar. Entzunaretoa, 17:30

Jon Barberena, Julio Soto, Eneko Fernandez, Iñigo Olaetxea, Alazne Untxalo eta Sarai Robles.

### Martxoak 8, igandea

Lesaka. Kultur Etxea, 17:30

Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri", Xabier Terreros, Julen Zelaieta, Amaia Elizagoien eta Kotte Plaza.

### Martxoak 15, igandea

Burlata. Kultur Etxea, 17:30

Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Oskar Estanga, Migel Mari Elosegi "Luze", Saioa Alkaiza eta Aritz Saragueta.

- 24 -



Finalurrekoetarako sarrerak, Berriozarko Ekia ekodendan, Lesakako okindegian eta Burlatako Ostarte tabernan daude eskuragarri, baita Internet bidez ere, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian. Bestalde, martxoaren 28an Elizondoko pilotalekuan jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala eta bertan 18 bertsolari horietatik 8k soilik izango dute txapela eskuartzeko aukera. Informazio eguneratua: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) eta [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com) atarietan.




**GRUPO TANATORIO**  
**IRACHE**  
 TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**


**ce consulting**  
 empresarial

**Enpresa aholkularitza**

- Fiskala
- Lana
- Kontabilitatea
- Abokatuak

666 939 332  
[aramos@ceconsulting.es](mailto:aramos@ceconsulting.es)  
[www.ceconsulting.es](http://www.ceconsulting.es)

La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien Etxaburua, 3. Betelu



## Heldu zein gaztetxoentzako tailer eta ikastaroak

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzutako langileek hainbat ekimen jarri dituzte martxan azken aldian. Gazteenentzako sukaldaritza tailerra egin zuten joan den hilean Lekunberriko Kattagorri Elkartearen. Euskara Zerbitzuarekin batera eta Larraun eta Lekunberriko Udalen laguntzarekin 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek pizzak eta cupcake-ak prestatu zituzten. Ikasturte osoan tailer ezberdinak egingen dituzte hilabetearen behin, larunbat iluntzean, dantza afrikarra, batukada, larrua lantzeko tailerra, zinema etab. Josune Zabala, gizarte langilea: *“Dagoeneko egin ditugun tailerretan parte-hartzea oso handia izan dugu eta espero dugu horrela jarraitzea. Gazteekin bilerak egin ditugu gure asmoak azaldu eta euren beharrak biltzeko eta hortik da ekimen hau”.*

Bestalde, gurasoei zuzendutako tailerrak ere antolatu dituzte, Betelun abenduan “Pedagogia sistematika” landu zuten ikastaro batean eta parte hartze handia izan zuen gurasoen aldetik. Lekunberri, garai berean “Internet eta sare sozialak arduraz erabiltzeko tailerra izan zen eta dagoeneko beste bi tailer dituzte antolatuta: Alde batetik otsailaren 24an eta martxoaren 3 eta 17an 15:00etatik 16:30era “Gure seme-

alaben autoestimua nola sustatu. Autonomia, arauak eta limiteak. Eraso eta talde presioa” ikastaroa izanen da Lekunberriko eskolan. Eta bestetik, apirilaren 20 eta 27an eta maiatzaren 4 eta 11n ordu eta leku berean “Heziketa prebentzioa da” ikastaroa eskainiko dute.

### Abenduan egindako elkartasun ekintzen aldeko balorazioa

Gizarte Zerbitzuak, guraso elkarteak eta Araxes eskolak antolatuta, jostailu trukaketa azoka egin zuten Beteluko frontoian. Neska-mutikoen egoera onean zizuten jostailuak eraman zituzten eskolara eta truke txartel bat eman zieten azoka egunean gustuko zuten jostailua aukeratzeko. Soberan gelditutako jostailuak umeen esparruan lan egiten duen Senegaleko GKE batera bidali zituzten. Gainera, sormen tailer bat ere egin zuten eta haur askok parte hartu zuten eskulanak egiten.

Bestalde, Lekunberri eta Larraunen, elkartasun astea ospatu zuten Ibarberri eskolan. Jostailu eta janari biltzea egin zuten. Bildutako janaria Iruñeko Elikagaien Bankura eraman zuten eta jostailuak berriz Fundación Talibés GKEra. Baina, bai Betelun eta bai Lekunberri espero baino jostailu gehiago jaso zituztenez Nafarroan dauden beharrei erantzuna emateko ere erabili ziren zenbait jostailu.

Josune: *“Gizarte Zerbitzutik Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraungo Guraso Elkarteek euren lana eta jarritako ilusioa eskertu nahi diegu, baita eskolei ere, baina batez ere eskualdeko neska-mutilei, adierazitako elkartasunagatik. Eskerrik asko denoi!”.*



**SAStraka**  
auto 4x4

**Ibilgailuen Mekanika Orokorra**  
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

**Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere**  
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9  
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo  
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

**Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala**

948513056  
699179437

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890

948 513 083  
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

## Prestatu eta atera korrika!

Martxoaren 29an izango da aurtengo Lekunberriko 27. Legoa. Arruizko Txikitoren omenezko proban izen emateko epea dagoeneko zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian. Egunean bertan ere izen emateko aukera egongo da. Korrikalariek 6 kilometro eta 40 metro egin beharko dituzte, Lekunberriatik atera Azpirozko Ziatarren etxe pareraino joan eta buelta. Proba nagusiaren aurretik, gaztetxoentzako krosa ere izanen da. Beraz, prestatu eta parte hartu!

Bestalde, Kirol Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, Legoa prestatzeko laguntzaileak behar dira eta lan talde bat prestatzeko asmoa dute. Laguntzeko prest bazaude, jarri harremanetan, 948604545 telefono zenbakiaren bitartez edo [kirolmank@gmail.com](mailto:kirolmank@gmail.com) helbidera idatzita.

## Frontenis Txapelketa azkarra

Satorzulo lokaleko gazteek Kirol Mankomunitatearekin batera Frontenis Txapelketa azkarra antolatu dute. Txapelketa martxoaren 14an izanen da Beteluko frontoian. Hilaren 10ean amaituko da izen emateko epea. Gehienez ere 16 bikotek parte hartu ahalko dute eta bikote bakoitzak 10 euro jarri beharko ditu. Partidak zehazteko zozketa martxoaren 12an arratsaldeko 20:00etan egingo da Satorzulo lokalean bertan. Bikote txapelkunak 200 euro jasoko ditu opari eta bigarren bikoteak 100 euro. Mugi eta eman izena [kirolmank@gmail.com](mailto:kirolmank@gmail.com) helbidean.

- 26 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



> Plazaola Partzuergoa




# 20 URTE BIDEAN

SL-NA 302 1,30 ordu / 5 km

## IRIBASKO ITURBU- RUAK

Zirkulu formako ibilbidea dugu hau, eta paseo eroso eginez –azkeneko 300 metroetako maldan izan ezik– Iribasko iturburuak bisitatuko ditugu.

Aralar mendiko ur asko kareharrizko zoruaren iragazten dira, eta Iribasko iturburuetatik ateratzen. Aitzarrateta Ertzilla ibaiaren sorburua da, eta Basakaitz Larraun ibaiarena.



**0,00 ordu / 0,000 km [1]** Iribas (620 m). Herriaren sarreran dagoen aparkalekuan hasten da ibilbidea. Handik elizarantz joanen gara. Inguru horretatik ikuspegi zabala izanen dugu, Uhantxoko ibarra eta iturburuaren eskualdearena (Iribasko iturburu edo Basakaitz izenez ezagutua). Hegoaldera jo, herria utzi eta, zelaian, ur biltegiaren ondotik doan pista hartuko dugu. Lehenbiziko zatiak GR-12 bidearekin bat egiten du (Euskal Herriko ibilbide luzea).

**0,12 ordu / 0,800 km [A]** Bidegurutze bat topatu eta eskuinetara igotzen den pista aukeratu dugu. Aldapa horretako gainaldera ailegatuta, beste bidegurutze bat aurkituko dugu, eta iturburuaren amilburu harritsua agertzen den tokian kokatu gara. Hemen, GR-12 mendiko ibilbideak eskuinetik jarraitzen du eta guk ezkerreko bidea hartu behar dugu. Arotzeneko bordaraino jaitsiko gara, eta handik hego-ekialdera jarraituko dugu, pista batean zehar. Pistak pixka batean behera egin eta gero zelaian jarraituko du Aitzarratetako iturbururaino. Han horma handia ikusiko dugu, makurtua. Haren beheko aldean jaiotzen da Ertzilla ibaia.

**0,30 ordu / 2,000 km [2]** Aitzarratetako iturburu. 200 bat metro atzera egin eta eskuinetara joko dugu, Aitzondoko zelaietatik, Ertzilla ibaiaren ondotik. Ibaia zeharkatzen duen ibar txiki honetan han-hemen hazten dira gaztainondo, haritz eta hurritzak. Ibaian behera eginez, bidea harizti artean barneratzen da, eta mehartzten, gero eta sakonagoa den ibaiaren ondoan. Ibaia, aurreraxeago, bihurtzen egiten du ezkerretara, galdera ikur baten antzera, haritz bezalako "penintsulak" inguratuz. Ibai barnean adarrak ikusten dira pilaturik: Ertzilla ibaiko urak irensten dituen zuloa edo sarbegia da; jaio eta kilometro bat eginik desagertu egiten da ibai hau.

**0,45 ordu / 3,000 km [3]**

Sarbegia. Ertzilla ibaiak gainezka egiten duenean baliatzen duen ibilgu lehorra zeharkatu, eta bide batetik igoko gara, malda txikian, pista batera iritsi arte (metro gutxi dira). Pista hartuko dugu, eskuinetara eta gora egiten duena, eta berehala utzi eta ezkerretara dagoen beste bat hartuko. Bide lau samar horretatik Lezegalde leizera ailegatu gara. Han barneratzen dira, ur-jauzi ikusgarriak, Ertzilla ibaiaren urak, asko handitu eta gainezka egiten duenean.

**0,55 ordu / 3,600 km [4]**

Lezegalde leizea. Hemen, aukera dugu ibilbidearen lehen zatiko pista berriz ere hartzeko, gora egin eta Iribasa itzultzeko. Ibilgu lehorretik jarraituko dugu, Uhantxoko ibarretik Basakaitzeraino (Larraunen iturburu) doana. Han ikusiko dugu nola zenbait iturburuaren urek, elkarturik, Larraun ibaia sortzen duten.

**1,05 ordu / 4,300 km [5]** Basakaitz. Iribasen azpian dagoen malda pikoan gora eginen dugu, aparkalekura iritsi arte, Alli eta Iribas herriak lotzen zituen bide zaharretik.

**1,30 ordu / 5,000 km** Iribas. Aparkalekua.



## “Vermiculita plakei esker tximiniek zehaztasun handiagoarekin erretzen dute egurra”

Urte t'erdi baino ez da Justo Fernandezek bere enpresa propioa sortu zuela, Suakontrol. Lekunberriko industriagunean aurki dezakegu eta tximinia eta suteen kontrako material eta aparatu berritzaileen aldeko apustua egin du.

### Nondik sortu zen enpresa berri honekin hasteko asmoa?

Nik hamaika urte neramatzan eraikuntzarako materialen enpresa batean zuzendari komertzial lanetan eta krisia dela eta 52 urterekin kalean geldituko nintzela aurreikusten nuen. Adin horrekin eta ordura arte neukan estatus ekonomikoa mantentzeko ahaleginetan aukera egokia ikusi nuen nire enpresa propioa sortzea. Txekiar Errepublikako enpresa batekin harremanetan jarri nintzen, vermiculita plakak saltzen dituen enpresa batekin.

### Zer dira vermiculita plakak?

Zurezko ohol baten itxura du, baina ez da zura, aldiz egurra bezala moztu, torlojutu edo iltzatzen ahal da, baina ez da erretzen eta 1.200 gradu arte eusten dio.

### Eta ze material mota da hori?

Zehazki Vermiculita exfoliatua da eta mineral bat da itsas mailaren azpiko meatzetan lurra induskatuz ateratzen dutena. Halako lauzpabost meatze baino ez daude mundu osoan. Mineral hori xehatu eta 850 gradutako labe batzuetan sartzen dute exfoliatzeko. Bulegoan dudan tximiniaren paretak material honekin eginak daude. Guk orain plaka zati bat hartu eta sutara botatzen badugu ez da erreko eta hemendik ordu batera ere berdin egongo da.

### Orduan enpresa txekiarrekin harremanetan jarri zinen...

Bai eta hasieran arriskatu egin behar izan nuen eta nahiko gogorra izan zen stock handi xamar bat osatu behar nuelako, ikusita bezero bakoitzak tamaina eta lodiera ezberdina nahi duelako. Orain tamaina eta dentsitate guztietako plakak ditut erabilera guztietarako. Behin funtzionatzen hasten garenean gure asmoa eraikuntzaren arloan ere lan egi-

tea da. Plaka hauekin aire hodiak egiten dira super merkatu handien-tzako, garajeentzako edo antzeko lekuetarako. Horrela, sute bat gertatzen denean, su ez dagoen leku horietara ere aire freskoa iritsi dadin eta bertan ito ez daitezten, vermiculitiaz egindako aire hodiak bi orduz iraun dezaketeelako sute batean. Sutearen kontrako erabilera anitz ditu eraikuntzan. Egitura metalikoen babeserako ere erabiltzen da suarekin burdina tolestu ez dadin edo sabaiak egiteko etab. Baina batez ere tximinia fabrikatzaileekin egiten dugu lan orainoz.

### Eta tximinien kasuan ze funtzio betetzen du?

Tximinien barruko paretetan adreilu islatzaileak jarri beharrea hau jartzen da. Material honek oso gutxi pisatzen du, oso arina da eta adreilu reflektarioarekin fundizioa pisuagoa da. Tximiniako kanpoalderako ere erabiltzen da. Egun tradizionalki su edo tximiniaren gainean egiten diren suburuak pladur foc edo harri-zuntzekin egin izan dira orain arte. Baina sektore honetan

murgildu naizen honetan ikusi dut Alemaniako harri-zuntzarekin egitea debekatua dagoela kartzinogenoa izan daitekeelako. Aldiz espainiar ministerioak 2003tik kartzinogenoa izan daitekeela onartzen duen arren, ez du bere erabilera debekatu. Bestelako erabilere-tarako material egokia ere izan daiteke harri-zuntza baina suburuetan erabiliz gero zuntz mikroskopiko horiek askatu eta sutondoan dagoen pertsonak arnastu ditzake eta horiek birikietan gelditu daitezke. Horregatik, guk plaka hauei esker, suburu osasuntsuago bat egitea lortzen dugu. Adibidez Lekunberriko Erretiratu Elkartean dagoeneko aldatu dugu suburuak.

### Adreiluak eta harriak material erre-gorrorak dira eta beroa mantentzen dute, vermiculita ere hala al da?

Produktu honek abantaila batzuk ditu hain zuzen horren erre-gorra ez izate-  
ez izate-  
ez izate-



Vermiculita plaka zatia sutan eta goialdean tiro egonkorgailua.

teagatik. Isolatzaileagoa da, hau da ez dio suari aldeetara joaten uzten. Tximinia fabrikatzaileei material hau izugarri ari zaie gustatzen, egurraren errekontzaren tenperatura normalean baino 100 gradu gehiagora igotzen delako. Hau da, egurra askoz ere zehaztasun handiagoarekin erretzen da eta horri esker, erreketan ateratzen diren gasek kea osatzen duten mikropartikula kopuru txikiagoak dituzte.

**Baina tximinia eraginkorragoa izatea lortzen duten material gehiago ere saltzen duzu ezta?**

Bai. Bidaia-tuz eta sektore hau ezagutzen nindoala, tiro egonkorgailua ezagutu nuen. Hemengo tximinia fabrikatzaileen artean nahiko gauza ezezaguna da. Tximinia bat egiten dutenean ez dakite itsas mailan, 2.000 metrora, hotz handiko leku batean, edo haize askoko batean jarriko den. Ezinezkoa da leku guztietarako egokia den tximinia bat egitea. Baina aparatu honi esker, fabrikatzaileak zehazten duen depresioan lan egitera bultzatzen du tximiniak. Fabrikatzaileek beti zehazten dute zein depresio mailatan den eraginkorra sortu duten tximinia hori, 11 pascaletan, 10 pascaletan, 12 pascaletan... Baina kanpoko baldintzek moduzuzenean eragiten diote tximiniari eta tiro egonkorgailuari esker depresio hori egonkor mantentzen da, nahiz eta leiho bat ireki edo baldintzak aldatu.

**Eta horrek ze abantaila ditu?**

Nik egurra behar den abiaduran erretzen badut ez dut gehiegizko berorik botatzen tximiniatik eta energia guztia edo gehiena bertan gelditzea lortzen dut. Horrek era berean, egur gutxiago erretzea dakar, egur berak denbora gehiago irauten duelako eta egurra au-



**“Gure asmoa pixkanaka eraikuntzaren arloan erelantegitea da”**

rretzen dugu. Aparatu honek 65 euro balio ditu eta hori lehenengo negua pasa baino lehen jada ordainduta dagoela esan daiteke. Eta gainera egur asko aurrezten joango gara. Norbait ekologiarekiko ardura badu, tiro egonkorgailuak airera mikropartikula gutxiago botatzen lagunduko dio eta ondorioz gutxiago kutsatzen ari gara. Bestalde, ariete kolpea edo Zhukowski efektuarentzako sistema bat ere badugu. Egurrak su hartzen ez duenean eta likido sukoi bat botatzen diogunean, eztanda txiki bat gertatzen da batzuetan eta kolpe horren ondorioz hoditeriak deformatu edo hautsi egin daitezke eta sistema horrek kolpe hori malguga izatea lortzen du. Exaustoreak ere saltzen ditugu tiroak ongi egiten ez duen etxeetan keak biltzeko eta behar bezala funtzionatzen laguntzeko. Zurgi-

nek vermiculita zakuak ere erosi ohi dizkirate baserrietako paretak isolatzeko. Vermiculita oso material interesgarria da, suaren kontra jokatzen duelako, hezetasuna xurgatzen duelako eta isolatzailea delako.

**Eta zer moduz doakizue?**

Nahiko ongi. Nahiko gauza ezezagunak ziren hemen eta tximinia instalatzaileen artean interes handia piztu da. Oso ongi saltzen ari naiz benetan funtzionatu egiten duelako eta ez duelako koste handirik. Hiru langile gara Suakontrolen, Reyes Sagastibeltza bulegoko lanetan aritzen da, Spas Dimitrov ingeniari elektronikoa da eta bera produkzioaz arduratzen da eta ni komertzial lanetan ibiltzen naiz, bidaia asko egiten ditut gure produktuak ezagutzera emateko eta bidea egiteko. Hasiak gara gastuak ordaintzen eta pozik gaude orain arte lortutakoarekin ea poliki-poliki aurrera egiten dugun.

Informazio gehiago:  
Oztegin, 25 - Lekunberri  
948 604 896 - suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**  
**URZUBI S.A.**  
Tel. 948 50 42 41      Lekunberri  
Fax 948 60 45 20      urzubi@hotmail.com

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO  
Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazaris@hotmail.com

**AMAIURU BAR**  
GTXEKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK  
948504352

**Kantina Rock**  
948 60 48 21  
**KANTINA**  
bokatak, platerak eta...musika.....

*Lagundu Mailope!*  
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**  
**HIRUROK S. VETERINARIOS**  
Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri



# HAIZEAK ERAMANA

Atlantatik iritsitako kontuak  
> Paula Aldave

## “Hemen farmazialaria medikuarekin batera joaten da gaixoarengana”

*Hiru hilabetetarako joan da Paula Aldave lekunberriarra Atlantara (Georgia), farmazialari izateko esperientzia berrien bila.*

### Noiztik zaude Atlantan eta zertan zabilta?

Urtarrilaren 9an etorri nintzen Atlantara hiru hilabetetarako. Atlantako Emory University Hospitalean nabil Farmaziako Graduako egonaldi tutelatueta parte hartzen.

### Zergatik aukeratu zenuen herri edo hiri hori? Edo bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Aspalditik neukan atzerrira joateko gogoia, ingelesa hobetzeko eta leku berriak ezagutzeko. Gainera farmazialarietako Estatu Batuetan betetzen duten papera ezberdina da, hemen medikuarekin joaten dira gaixoari bisita egitera eta taldean askoz ere integratuagoa zaude. Horregatik esperientzia honek ikuspuntu berri bat eskainiko zidalako ere interesgarria iruditu zitzaidan. Unibertsitatean herrialde ezberdinetara joateko eskaintza dago eta hona etortzeko aukera izan nuen eta egia esan bete-betean asmatu nuela uste dut.

### Zein da zure egunerokoa bertan?

Astez goizero ospitalera joaten naiz lanera, egunero farmazeutiko ezberdin batekin egiten dut lan. Horri esker, espezialitate ezberdinak ezagutzen nabil. Asteburuetan berriz, hiria ezagutu eta ahal dudana heinean bidaiatu eta leku berria ezagutzeko aprobetxatzen dut.

### Zer da gehien harritu zaituena?

Europar herrialde batetik zatozenean gehien harritzen zaituena da ez duzula inolara kalean oinez ikusten, batzuetan ematen du hiria lo dagoela. Hemen denak autoz joaten dira hara eta hona. O graduarekin ikusi izan ditut pertsonak txankletetan, badakitelako hotzik ez dutelako pasako parkingetik zuzenean unibertsitate sartzeari. Estatu Batuetako gainontzeko hirietan ez bezala, Atlantan distantziak oso handiak dira eta garraio publikoa ez da oso ona, hemen autorik ez baduzu galduta zaude.

### Hizkuntzarekin zer moduz moldatzen zara?

Hizkuntza da gauzarik konplikatuenetakoa. Nahiz eta txikitatik ingelesa ikasten ibili, hona iristen zarenean hizkuntza arrotz batean ari direnaren sentsazioa da. Kosta egiten da ahoskera



horretara ohitzea, kalean hitz egiten den modura, batez ere horren azkar hitz egiten dutenean. Baina, bestalde, oso motibagarria da geroz eta gehiago ulertzen duzula konturatzen zarenean eta eskertu egiten da amerikarrek atzerritarrekin duten pazientzia eta jatortasuna.

### Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Esperientzia honek eskainiko dizkion momentuez gozatzeko eta ikasteko gogoarekin etor dadila. Udako eta neguko arropa ekar dezala ere gomendatuko nioke, Atlantan ez baitago eguraldiarekin asmatzerik. Azkenik, merezi duen bidaiaria da New Orleansera joatea Mardi Gras ospatzen ari diren garaian, hemen, Estatu Batuetan, oso inauteri ezagunak dira.

### Eta zer ez zenuke gomendatuko?

Downtown Atlantara joatea, hiriarren erdigunera. Auzo arriskutsua da eta ezin jakin zer aurkituko duzun han. Gu han izan ginen lehenengo egunean, pentsatuz gune turistiko bat zela, baina metrotik atera eta panorama ikusi orduko alde egin genuen.

### Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobetxatu!

Zaindu zaitezte eta gozatu bizitzaz! Bi hilabete barru elkar ikusiko dugu! Muxu handi bat!

## martxoa

8

Lekunberri: *Kantu poteoa Lekunberriko kaleetan. Hasiara 12etan Herriko Plazatik.*

13

Baraibar: *19:00etan ostatuan Jostunak dokumentala.*

13

Betelu: *Aralar Musika Eskolako ikasleen kontzertua Araxes eskolan, 15:00etan.*

14

Betelu: *frontoian Frontenis Txapelketa Azkarra.*

14

Lekunberri: *Bertso-afaria Kattagorri Elkartean, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.*

20

Astiz: *Bertso afaria aterpean. Eneko Lazkoz, Ander Fuentes (Itturri), Migel Mari Elozegi (Luze), Oskar Estanga eta Larraungo Bertso Eskolako bertsolariak.*

21

Lekunberri: *Kinto Eguna.*  
-11:00 kintoen arteko ginkana plazan  
-14:00 bazkari autogestionatua trinketean  
-Bazkaldu ondoren bingoa eta trikipoteoa  
-24:00 Gaupasa DJ-arekin

22

Atallu: *Gure Esku Dago festa frontoian.*

27

Lekunberri: *Korrika Txikia.*

28

Lekunberri: *"Ikasbidaia... nora joan?" ikuskizuna kiroldegian, 18:30etan.*

29

Lekunberri: *Arruizko Txikitoren omenezko 27. Legoa.*

agenda

## merkatu txikia

### SALGAI

- Areson, SASTIZAR **baserri - landetxea** salgai 25.000 m2 lur eremuakin.  
info@sastizar.com

- **Banabarra** salgai Leitzaan, oso fina eta eguterakoa.  
660 421 746 (Ekaitz).

-Azken urteko **siloko belar-bolak** salgai Etxarri-Larraunen.  
676221689, Joxe.

### LAN BILA

- Lekunberri emakume bat prest **edozein lanetan aritzeko**: etxeko lanak, pertsonak zaindu, etxebizitzaren garbiketarako eta abar.  
Emilia Dimitrova, 948 604 893 / 679 053 368 .

### ALOKAIRU BILA

- Araitza eta Leitzaan bailaran alokatzeko **borda, etxe edo baserri** bila dabilen bikotea.  
Amaia (661 658 767)

### ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

## martxoa - emakumearen eguna 2015

3

- **10:00** - BISITA KULTURALA: "Lekunberriko Klarisatarrak"  
- **20:00** - ZINEA: "Las Chicas de la Lenceria". Udal Aretoa.

6

- **FORMAKUNTZA**. Emakumea artearen munduan  
- Eskolako umeentzako saioak egun osoa  
- **20.00 HITZALDIA**: "Emakumeak eta bere eskubideak: alargunak, dibortzioak, bikoteak..." . Udal Aretoa

7

- **EMAKUMEENTZAKO AFARIA**.

10

- **19.00** - PINTXO DASTAKETA ETA ARDO KATA.  
Katta - gorri.

14

- **20.00** - ANTZERKIA: Trokolo "Con Ojos de Tortuga" Eskola.

17

- **20:00** - ZINEA: "La Piedra de la Paciencia". Udal Aretoa.

18

- **Pragara bidaia**.

31

- **20.00** - ZINEA: "Hanna Arend" subtituloak euskaraz Udal aretoa.



**ALIPROX**  
Lekunberri  
**janaridenda**

hamabostaldiro eskaintza bereziak

**Inigo Garaioa**  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**TAXILON**



Lontxo  
Otamendi  
Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitza



SORGINTXO  
HAUR ESKOLA



# MATRIKULATZEKO EPEAK

- *Beteluko Haur Eskola, elebakarra (euskaraz)* •
- *0-3 urte bitarteko haurrak hartzen ditu* •
- *Bi modulu daude, 4 ordu eta 7 ordukoa* •

Ordutegia: 8:00 etatik 16:30era  
948 513 001 - sorgintxohaureskola@hotmail.com  
Antigua kalea 5,  
31890 Betelu

Informazio gehiagorako gure webgunea:

\* [sorgintxohaureskola.wordpress.com](http://sorgintxohaureskola.wordpress.com) \*



## 2015-2016 IKASTURTERAKO MATRIKULA EGUTEGIA

### MARTXOA

2	3	4	5	6
9	10	11	12	13
16	17			

IKASLE BERRIEK  
AURRE MATRIKULA  
EGITEKO EPEA

### MAIATZA

			7	8
11	12	13	14	15
18	19	20	21	22
26	27	28	29	30

ONARTUEN BEHIN BEHINEKO  
ZERRENDA

ERREKLAMAZIOAK EGITEKO  
EPEA

ONARTUEN BEHIN BETIKO  
ZERRENDA

MATRIKULA EGITEKO EPEA

Paperak hartu eta uzteko ordutegia eta tokia:  
Sorgintxo Haur Eskolan, astelehenetik ostiralera  
8:00etatik 9:00etara eta 13:30etik 15:15era